



Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Sal6n de Plenos

Bildutakoak: / Asistentes:

Alkatea / La Alcaldesa Maider Lainez Lazcoz

Zinegotziak: / Concejales:

EH-Bildu

Andoni Alvarez Lete
Estibalitz Mujika Tolaretxipi
Jon Zulueta Berastegi
Garazi Usandizaga Zubiria
M^a Teresa Etxeberria Arteun
Xabier Fond6n Pajares

PSE-EE

Jos6 Luis Verdasco Gutierrez
Ascensi6n Parr6n Peguero
Petra Romero Pozo

EAJ-PNV

Maria Jose Izagirre Iturzaeta
Alexander Huitzi Alfonso
M^a Sagrario Ruiz Fern6ndez
Imanol Goenaga Egibar

Elkarrekin Podemos M^a Teresa Santana Rubio

Akta Zenbakia	00000003
Eguna	2022/03/31
Hasiera	19.00
Amaiera	19.41

Idazkaria:

Unai Rekondo P6rez

Kontuhartzailea

Myriam Lizaso
Arruabarrena

Interpretaria

Jon Unanue Lopez

Ez dira bertaratu eta adierazi dute: / No asisten y se excusan:

Oscar Mendo Gonz6lez – PSE-EE / Julian L6pez Aracama – EH Bildu

Gai Zerrenda:

- 2022/02/24(e)an egindako batzarraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Xedapenak

- 2022/2023 ikasturterako Galardi Udal Haurreskolako tasen aldaketa-
- 2022/2023 ikasturterako Udal Musika Eskolako tasen aldaketa.
- Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko zergaren ordenantza fiskalaren aldaketa.
- Gastuak judizioz kanpo aitortzeko proposamena.
- Ama Kandida 5 HEaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren testu bateratua behin betiko izaeraz onartzeko proposamena.
- Andoingo HAPOko 48 Illarramendi HAEko b.04.a eta b.04.b lursailak aldatzeko xehetasunazterlana behin betiko izaeraz

Orden del D6a:

- Lectura y aprobaci6n, si procede, del borrador del acta de la sesi6n celebrada el 24/02/2022.

Parte Dispositiva

- Modificaci6n tasas curso 2022/2023 Escuela Municipal Galardi.
- Modificaci6n tasas curso 2022/2023 Escuela Municipal de M6sica.
- Modificaci6n ordenanza fiscal Impuesto Construcciones, Intalaciones y Obras.
- Propuesta reconocimiento extrajudicial gastos.
- Propuesta de aprobaci6n, con car6cter definitivo, del texto refundido del Plan Especial de Ordenaci6n Urbana del AIU-5 Ama Kandida.
- Aprobaci6n definitiva del Estudio de Detalle para la modificaci6n de las parcelas b.04.a y b.04.b del AIU 48 Illarramendi del PGOU de



- onartzea.
8. Andoingo HAPOko 48 Illarramendi HAEko b.01.b lursaileko lerrokadurak aldatzeko xehetasun-azterlana behin betiko izaeraz onartzea.
 9. Udalerriko ikastetxeei zuzendutako prebentzio jardueretarako laguntza ekonomikoen ordenantza, hasierako izaeraz, onartzea.
 10. Tratu On plana onartzeko proposamena.
 11. 2022/456 zk.ko Alkatezako Ebazpena berresteko proposamena.
 12. 2022/457 zk.ko Alkatezako Ebazpena berresteko proposamena.
 13. EAJ/PNV udal taldeak 2022.03.25ean aurkeztutako Saharari buruzko mozioa

- Andoain.
- 8.- Aprobación definitiva del Estudio de Detalle correspondiente a la modificación de alineaciones de la parcela b.01.b del AIU 48 Illarramendi del PGOU de Andoain.
 - 9.- Aprobación, con carácter inicial, de la Ordenanza de las Ayudas económicas para actividades de prevención dirigidas a centros escolares del municipio.
 - 10.- Propuesta de aprobación del plan Tratu On.
 - 11.- Propuesta de ratificación de la Resolución de Alcaldía nº 456/2022.
 - 12.- Propuesta de ratificación de la Resolución de Alcaldía nº 457/2022..
 - 13.- Moción relativa al Sáhara presentada por el grupo municipal EAJ/PNV el 25.03.2022.

Kontrola

14. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 273/2022 zenbakidunetik 474/2022 zenbakidunera.
15. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Parte de Control

- 14.- Dar cuenta de las Resoluciones comprendidas entre la nº 273/2022 y la nº 474/2022.
- 15.- Ruegos, preguntas y propuestas.

Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.

Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on guztioi eta ongi etorriak izan zaitezte udalbatzar honetara, hau da, 2022ko martxoaren 31ko udalbatzarrera.

“Decía que, buenas tardes y bienvenidas a todas y todos al pleno del 31 de marzo de 2022. Hasiera emango diogu gaurko udalbatzarrari.

“Oscar Mendo zinegotzia oraindik bajaran dagoela eta horrexegatik bere bozka delegatzen du José Luis Verdasco jaunarengan.

“Decíamos que el concejal del partido socialista Oscar Mendo sigue de baja y en consecuencia delega su voto en D. José Luis Verdasco.”

1. 2022/02/24(e)an egindako bileraren akta irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Lehendabizi, 2022/02/24 datako batzarraldiari dagokion akta aztertzeari ekin zaio, eta inork ezer adierazi ez duela kontuan harturik, onartutzat eman da.

2. 2022/2023 ikasturterako Galardi Udal Haurreskolako tasen aldaketa.

Ikusirik, alde batetik, Galardi Udal haurreskolan aurreko urte hauetako gastuetan eta langileen ordainsarrietan (%2) izandako igoerak eta bestetik, aurtengo KPI-a oso altua izan dela, %6,5 hain zuzen ere.

Hezkuntza eta Kultura Batzorde Irizpenemaileak 2022-02-23ko bileran

Ikusirik, Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Informatzaileak 2022/03/22(e)ko bileran emandako aldeko irizpena.



Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Ruiz andreak, Hezkuntza eta Kultura Zinegotzi Delegatuak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on, dakizuen bezala urtez urte joan da igotzen ezta, baina, pandemiarekin kongelatu ziren tasak, orduan, aurten gastua igo egin da eta erabaki dugu %2a igotzea.

“Dakizuen bezala, baita, %6,5 zegoen jarrita irudituz zaigu altua dela, kolpetik hainbeste ez igotzeko erabaki dugu %2a aplikatzea.”

Jarraian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, nosotros, tal y como comenté en la comisión no es que no estemos de acuerdo con la subida del 2%, eso nos parecería bien que no se aplicara el 6%, pero lo que si que nos parece es que si las tasas tienen que ser progresivas, a nuestro entender, más en el caso de la guardería que nos parece que se fije en dos tramos únicamente, pues, no nos parece del todo correcto, porque hasta 10.200 euros de ingresos, 197,29€ y luego de 10.200€ en adelante, 281,84 euros, no lo vemos nada progresivo y lo vemos injusto, porque, nos parece que hay personas que no llegan a los 10.200€ y que pueden ser familias especialmente vulnerables o monoparentales que tienen una necesidad especial y que les puede resultar costosa esta tasa y no vemos que en dos tramos sean justas las tasas.

“Entonces, aunque el 2% nos parece adecuada, la subida, nos vamos a abstener, un poco para ver si entramos en un debate sobre que tiene que ser este servicio y como se tiene que abonar.”

Erantzuten du, Ruiz andreak:

“Nik hori buruz esateko, bakarrik, familiengan pentsatu dugula eta kalte handiagorik ez egiteagatik erabaki da bai ingresoeta eta baita tasetan, %2a igotzea.”

Jarrain, Alvarez jaunak, EH Bildu udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Guk, batzordean esan genuen bezala %2ren alde gaude, baina, aipatu genuen gure kezka Kultura eta Hezkuntza batzordean eta Santana andreak dion aritik, uste dugu Andoingo familien ekonomiaren edo, argazki bat behar dugula eta argazki horren baitan aplikatu tasak bai hezkuntzan eta beste arloetan.

“Hori ez da epe motzeko gauza bat, guk, esan dugun bezala alde bozkatuko dugu, baino, uste dugu beharrezkoa dela Andoingo egungo familien egoera zein den ezagutzea eta horretarako azterketa bat egin beharko litzateke gure ustez.”

Parte hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE, EH Bildu eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotziaren abstentzioarekin, honakoa erabaki du:

1.- 2022-2023 ikasturterako Galardi Haurreskolako tasak onartzea, jarraian zehazten direlarik:

7.10.- Galardi Haurreskolako zaintza eta egonaldi zerbitzua hilean	
7.10.- Servicio de asistencia y estancia en la Escuela Infantil Galardi	
10.200€ arte / Hasta 10.200€ de ingresos.	197,29 €
10.200,01€tik aurrera / De 10.200,01€ en adelante	281,84 €

Galardi udal Haur Eskolako zaintza eta egonaldi zerbitzuaren hileko kuota atalkakoa izango da, eta kuota eskatzaileen diru sarreraren arabera aplikatuko da.

Atalak hauek dira:

1.- 10.200€ arte (%70) 197,29€ kuota

2.-10.200,01€tik aurrera (%100)281,84€ kuota (*)

(*) Hau izango da kuota erreferentziala hobariak aplikatzeko.

Diru sarrerak Per Capita Errentaren (PCE) arabera ezarriko dira, eta eskatzaile bakoitzari dagokion atala, ondoren zehazten den formularen arabera erabakiko da:

PCE = zerga oinarri orokorra
famili unitate kopurua

Zerga oinarri orokorra kalkulatzeko, familia unitate osoaren diru sarrerak hartuko dira kontuan; hau



da, errenta aitortpena, edo jasotako zerga oinarri orokorraren aitortpen ziurtatua.

Famili-unitatea edo bizikidetz-unitateari dagokionez, honako pertsonak edo pertsona-taldeak hartuko dira bizikidetz-unitatetzat:

- Etxebizitza edo bizitoki batean bakarrik bizi diren pertsonak, eta talde horretatik kanpo geratuko dira, bakarrik bizi izanda ere, beste pertsona batzuekin ezkontza bidez edo ezkontzakoaren antzeko beste harreman iraunkorren baten bidez lotuta daudenak, honako kasu hauetan izan ezik:
- Banantzeko edo dibortziazteko edota Izatezko Bikoteen Erregistroan baja hartzeko izapide judizialak hasita daudenean.
- Etxeko indarkeriaren biktimak direnean, banantzeko edo dibortziazteko izapide judizialak hasi ez badituzte ere, betiere zirkunstantzia hori dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren aldeko gizarte-txosten bidez justifikatzen bada eta izapide horiek urtebeteko epean hasten badira, izatezko banantze-egunetik zenbatzen hasita.
- Pertsona errefuxiatuak direnean edo izaera hori lortzeko eskaera eginda dutenean eta eskaera hori izapidetzeko onartu dutenean, eta beren ezkontidea edo ezkontzakoaren antzeko beste harreman iraunkorren baten bidez lotuta dagoen pertsona esatutako lurraldean ez denean bizi.
- Etorkinak direnean, eta beren ezkontidea edo ezkontzakoaren antzeko beste harreman iraunkorren baten bidez lotuta dagoen pertsona estatuko lurraldean ez denean bizi, betiere dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren aldeko gizarte-txosten bat dagoenean; kasu horietan, bizikidetz-unitate izaerari hamabi hilabetez eutsi ahal izango zaio, eta ezohiko izaera beste hamabi hilabetez luzatu ahal izango da.
- Etxebizitza edo bizitoki berean elkarrekin bizi diren bi pertsona edo gehiago, elkarren artean ezkontzaren bidez edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkor baten bidez batuta daudenean, edo laugarren mailarainoko odol-ahaidetasunagatik, edo familia-harrerako harreman iraunkor batengatik edo adopzio aurreko edo tutoretzapeko harreman batengatik batuta daudenean.
- Errentamendu-kontratu baten titularra den pertsona edozein modalitatean, 2) idatz-zatian aurreikusitako loturaren batekin lotuta ez dagoen beste pertsona batzuekin etxebizitza edo bizitoki berean bizi dena, premia larriko benetako egoeren ondorioz.

2) puntuan aurreikusitako loturaren bat daukaten pertsonen helbidean integrantzen direnean ere, **bizikidetz-unitatetzat hartuko dira**, 2010eko ekainak 17ko EHAAn, 114 zenbakia duenak, 5 artikuluko 2. puntuan zerrendatzen diren kasuak. Ondoren zehazten den modura:

Artikulua 5, 2. puntua: bizikidetz-unitatetzat hartuko dira honako hauek:

a) Zahartasun, elbarritasun edo alarguntasuneko ordaindutakoaren araberakoak edo horren araberakoak ez diren pentsioen onuradunak, haien ezkontidearekin edo haiekin ezkontzaren antzeko harreman iraunkor baten bidez batutako pertsonaren eta ekonomikoki haien mende dauden pertsonekin batera. Aurrekoaren ondorioetarako, lehenengokiko ekonomikoki mendekotzat hartuko dira inolako diru-baliabiderik ez duen pertsona bakar bati dagokion Gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako Oinarrizko Errentaren zenbatekoa baino diru-sarrera konputagarri handiagoak ez dituzten pertsonak, salbuetsita geratuz lan egiteagatik edo osagarriak izan daitezkeen pentsioetatik datozen diru-sarrerak lortzen dituzten pertsonak.

b) Etxeko tratu txarren biktima izanik, beren seme-alabekin batera, horiek baleude, ohiko bizilekua abandonatu duten pertsonak; bakarrik bizi diren pertsonen kasuan, harrera egiten duen bizikidetz-unitatetik bereizitako bizikidetz-unitate izaerarekin gehienez ere hamabi hilabeteko gehieneko epea jarraitu ahal izango dela, eta ezohiko kasuetan beste hamabi hilabetez luzatu ahal izango da.

c) Ekonomikoki beren kargura % 45etik gorako desgaitasun-kalifikazioa duten edota II. graduako 1. mailako mendetasuna edo handiagoa duten adingabeak edo pertsona helduak dituzten pertsonak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 legean aurreikusitakoaren arabera.

d) Beren ohiko etxebizitza utzi behar izan duten pertsonak, dela banantze edo dibortzio baten edo izatezko batasun bat desegitearen ondorioz edo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak muturrekotzat jotako



egoeraren batengatik.

Aurrekoaren ondorioetarako, muturreko egoeratzat hartuko dira etxebizitza bat-batean galtzea utzarazpen baten edo hondamendi baten edota etxebizitzaren ordainketari aurre egiteko ezintasun nabarmenaren ondorioz, betiere egoera horiek eskatzaileari egozgarriak ez badira.

Aurreko paragrafoan aipatutako c) eta d) kasuetan, bizi deneko bizikidetzaren bereizitako bizikidetzaren unitate izaerari gehenez ere hamabi hilabetez eutsi ahal izango zaio, eta ezohiko kasuetan beste hamabi hilabetez luzatu ahal izango da.

Tasa hori hileroko kobratuko da, hilabetea amaitu ondoren. Baina, haurraren onarpenaren ebazpenaren notifikazioa jaso bezain azkar, hilabete baten kuotaren erdia kobratuko da eta kopuru hori haurra hasiko ez balitz ere, ez da itzuliko.

Bajak: aurreko urtean Haur Eskolan egonik bertan jarraitu nahi ez duten haurren kasuan, baja idatziz izgorri beharko dute izena emateko ezarritako epe berean (matrikulazio kanpainan).

Abian den ikasturterako, **apirilaren 20tik aurrera ez da inolako bajaran onartuko**, eskaera hori behar bezala zuriturik ez baldin badago behintzat (egoitza aldaketa, ziurtaturiko gaxotzea, edo antzeko kasuak...).

Zuritu gabeko kasuetan, hilabete horiei dagozkien tasak kobratzen jarraituko dira ikasturtea amaitu arte.

Ondo zuritutako kasuetan, apirilaren 30etik aurrera baja onartuko da, eta ikasturte amaiera arteko tasak ez dira kobratuko.

Onartutako bajaran, eskaera aurkeztutako egunaren hurrengo hilabetean jarriko dira indarrean.

Ordainketetako atalean kuota guztiak ordaintzen ez dituzten familiek hurrengo ikasturteko matrikula berria egiteko eskubidea galduko dute.

Hobariak

1.- Urtean 10.000€ (zerga oinarri orokorra) baino gutxiago jasotzen dituzten unitate familiarretako erreferentziazko kuotaren %30.

2.- Galardi Udal Haur Eskolara doan bigarren seme-alabaren ordainsariaren %50.

3.- Galardi Udal Haur Eskolara doan hirugarren eta hurrengo seme-alabaren ordainsariaren %100.

4.- Familia-ugarrien kasuan, Galardi Haur Eskolara doan seme-alaba kopurua kontutan hartu gabe.

- **3 seme-alaba** arteko. Kategoria orokorrekof amilia ugariak %30a.
- **4 seme-alabako** Kategoria orokorreko familia ugariak %50a.
- **Kategoria bereziko** familia ugariak %80a.

39/2015 Legearen 28. artikuluan, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan eta 38/2003 Legeko 14. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Andoingo Udalak, interesdunak horren aurka egiten ez badu, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren erregistroetan eta NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, hobariak eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten egiaztatze behar den informazioa kontsultatuko du zuzenean eta, bereziki, honako datu hauek: familia ugari titulua eta aurreko urteko errenta aitortpenaren datuak.

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21 artikularekin bat etorriz, eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka egin ahal izango du, aurka egiteko arrazoiak adieraziz, eta kasu horretan, udalak dagokion agiria aurkeztera behartu ahal izango du.

Udalak, edozein unetan, eskatzaileak hobariaren oinarri den baldintza galdu duela egiaztatzen balu, pertsona horrek hobari hori automatikoki galduko luke.

Hobari horiek ez dira metagarriak.

Ordainsariak murriztezinak izango dira, ondorengo kasuetan izan ezik:

- **%50eko** murriztapena haurraren egokitzapen epealdian (lehenengo hilabetean) Aldez aurretik kobratutakoa egoera honetan hartzen da kontuan.

- Justifikaturiko arrazoiengatik asistentzia faltan kasuan izan ezik, beti ere hau astebetekoa baino luzeagoa denean; kasu horretan bazkariari dagokion gastua itzuliko da, zeina 2022/2023 ikasturtetik aurrera **2,62€** /egunean finkatua izan den.



• Justifikatutako asistentzia falta (aste betekoa gutxienez), hori gertatu aurreko asteko azken bi egunetan jakinaraziko da idatziz. Gaitza edo istripuagatik denean, medikuen ziurtagiria ekarri beharko dute astebete barruan.

• Langilegoaren grebarengatik Udal Haur Eskola itxi behar baldin bada, itxita egongo den egun bakoitzeko 2,62€ euroko deskontua egingo zaio.

Ordainsari hauen iraunaldia:

Tasa hauek 2022/2023 ikasturteetik aurrera egongo dira indarrean.

2.- Administrazio-espedientea jendaurrean jartzea, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz eta Andoingo Udaletxeko iragarki-taulan eta web-orrian erakutsiz, **30 eguneko** epeaz, interesadunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

3.- Espedientea jendaurrean dagoen bitartean alegaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, aipatu araudia behin-betiko izaeraz onetsita geratuko da.

3. 2022/2023 ikasturterako Udal Musika Eskolako tasen aldaketa.

Ikusirik, alde batetik, Udal Musika Eskolan aurreko urte hauetako gastuetan eta langileen ordainsarrietan (%2) izandako igoerak eta bestetik, aurtengo KPI-a oso altua izan dela, %6,5 hain zuzen ere.

Hezkuntza eta Kultura Batzorde Irizpenemaileak 2022-02-23ko bileran,

Ikusirik, Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Informatzaileak 2022/03/22(e)ko bileran emandako aldeko irizpena.

Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Ruiz andrearek, Hezkuntza eta Kultura Zinegotzi Delegatuak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Hemen ere irizpide berdina erabili dugu eta baita ere, lehen ahaztu zait komentatzea, baina, langileei baita %2aren igoerarekin batera, erabaki dugu %2a igotzea, Haurreskolarekin bezala bi urtez egon da kongelatua, kolpetik ez igotzeko eta pixkanaka joateko.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andrearek proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- 2022-2023 ikasturterako Udal Musika Eskolako tasak onartzea, jarraian zehazten direlarik:

7.9.- Udal Musika Eskola	
7.9.- Escuela Municipal de Música	
I. Maila / Nivel I	
Tailerra / Taller	226,54 €
II. Maila / Nivel II	
Funtsezko irakaskuntza + musika hizkuntza Enseñanza principal + Lenguaje musical	520,91 €
Funtsezko irakaskuntza + talde instrumentala edo korala Enseñanza principal + Grupo instrumental o Coro	451,96 €
Funtsezko irakaskuntza +talde instrumentala edo korala + musika hizkuntza Enseñanza principal + Grupo instrumental o coral + Lenguaje musical	677,48 €
Funtsezko irakaskuntza + talde instrumentala + talde korala Enseñanza principal + Grupo instrumental + Grupo coral	604,55 €
Funtsezko irakaskuntza + talde instrumentala + talde korala + musika	827,22 €



hizkuntza Enseñanza principal + Grupo instrumental + Grupo coral + Lenguaje musical	
Funtsezko Irakaskuntza / Enseñanza principal	387,40 €
Funtsezko Irakaskuntza (Abesbatza) Enseñanza principal (Coro)	178,09 €
Musika hizkuntza / Lenguaje Musical	272,54 €
Musika hizkuntza + Funtsezko Irakaskuntza (Abesbatza) Lenguaje Musical + Enseñanza principal (Coro)	375,53 €
III. Maila / Nivel III	
Funtsezko Irakaskuntza + taldea edo taldeak Enseñanza principal + Grupo o grupos	451,96 €
IV. Maila / Nivel IV	
Taldea edo taldeak / Grupo o grupos	155,35 €
Banda	Salbuetsita Exento
Osagarriak (III eta IV mailak) / Complementarias (Nivel III y IV): Harmonia moderna / Armonía moderna	180,64 €
Osagarriak (III eta IV mailak) / Complementarias (Nivel III y IV): Mindfulness	91,80 €

II. Maila: Funtsezko irakaskuntza (musika tresna, kantua edo tresnarantz edo kanturantz orientazioa) eta honi dagokion praktika (tresna edo kantua) eta musika hizkuntza.

III. Maila: Funtsezko irakaskuntza (musika tresna edo kantua) eta honi dagokion praktika (tresna edo kantua).

IV. Maila: tresnarantz edo kanturantz taldea.

III. eta IV. Mailako taldeak: ganbera, konboak, orkestrak, abesbatza, banda.

Salbuespenak.

1. Musika Hizkuntzan bakarrik matrikulatzeko, ezinbesteko baldintza izango da eskatzaileak jotzen duen funtsezko irakaskuntza Udal Musika Eskola honek ez duela eskaintzen ziurtatzea.

2. Funtsezko irakaskuntzan bakarrik matrikulatzen kasu berezietan besterik ez da onartuko, behar bezala arrazoituta dagoenean eta dagokionak horri buruzko txostena egin ondoren.

3. Funtsezko irakaskuntza abesbatza denean, gai honetan bakarrik matrikulatzen uzteko, hizkuntza musikaleko oinarriko maila bat erakutsi beharko da eta Eskolan eskaintzen diren gainontzeko gaietan inongo interesik ez edukitzea.

4. Funtsezko irakaskuntza ikasketak udalerritik kanpo egiten dituzten ikasleei kuotaren %50eko dirulaguntza emango zaie, beti ere Andoingo Udal Musika Eskolak funtsezko irakaskuntza horren ikasketarik eskaintzen ez badu, eta 4 ikasturteko epe mugarekin.

Ikasle indartuak

Baldintza hori betetzen duten ikasturte horretan, ordaindu beharreko tasaren %75aren gehikuntza izango dute indartutako ikasgaietan.

Hobariak

1.- Familia ugariak:

- Kategoria orokorra **3 seme-alaba** arte%30a
- Kategoria orokorra **4 seme-alaba.**%50a
- Kategoria berezia.....%80a



2.- Famili bereko ikasleak:

- Udal Musika Eskolara doan familia-unitate bereko edo elkarrekin bizitzen diren bigarren partaidea duen 1. matrikulan **%15a**.
- Udal Musika Eskolara doan familia-unitate bereko edo elkarrekin bizitzen diren hirugarren eta hurrengo partaideek duten 1. matrikulan **%25a**.

3.- LGSra iristen ez diren 65 urtetik gorako ikasleak:

- %30eko hobaria izango dute.

4.- Gutxien musika tresnak:

- Metalezko musika tresnetan matrikulak (tronpetak izan ezik), lehenengo bi ikasturteetan %30eko hobaria izango du.
- Langabezian dagoen ikasleagoari eta tresna hauetako batetan matrikulatzen bada, %70 hobaria emango zaio.

39/2015 Legearen 28. artikuluan, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan eta 38/2003 Legeko 14. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Andoingo Udalak, interesdunak horren aurka egiten ez badu, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren eta Gipuzkoako foru Aldundiaren erregistroetan eta NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, hobariak eskuratzeko baldintzak betetzen dituzuen egiaztatze behar den informazioa kontsultatuko du zuzenean eta, bereziki, honako datu hauek: familia ugari titulua; langabetu bezala izen-emanda egotea eta aurreko urteko errenta aitoren datuak.

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21 artikularekin bat etorriz, eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka egin ahal izango du, aurka egiteko arrazoiak adieraziz; eta kasu horretan, udalak dagokion agiria aurkeztera behartu ahal izango du.

Udalak, edozein unetan, eskatzaileak hobariaren oinarri den baldintza galdu duela egiaztatzen balu, pertsona horrek hobari hori automatikoki galduko luke

Hobari hauek ez dira bateragarriak.

Ordainketak.

9.1. Ordainketa: **50,00 €** izena ematerakoan. onarpenaren berri ematearekin batera. Matrikularen epea bukatu aurretik baja aurkezten ez baldin bada, diru hori **berreskuratzeko eskubidea galdu egiten da.**

10. Gainontzekoa ikasturtean zehar, 9 hilabetetan.

Bajak:

Ikasturtea hasi eta 7 egun naturalen epean baja eskaera idatzia aurkezten bada, izena ematearengatik ordaindutako 50,00 €-ak bueltatuko dira.

2022ko irailaren 30a baino lehen baja emateko eskaera idatzia aurkezten bada, hurrengo hilabetean jarriko da indarrean. (2022ko irailako kuota ordaindu egin beharko da).

2022eko urriaren 1etik aurrera baja eskaera idatzia aurkezten bada, hilabete horretako eta ondorengo kuotak ezeztatzea edo, dagokionean, itzultzea onartuko da, honako kasu hauetan bakarrik, eta gainera, idatziz eskatu beharko da, kasuari dagokion ziurtagiria erantsiko delarik.

- Lan baldintzen aldaketak (ordutegia, lekua, lanbidea... enpresaren ziurtagiri bidez).
- Familia baldintzen aldaketa.
- Araututako ikasketa baldintzen aldaketa (ordutegia, lekua... ikastetxearen ziurtagiri bidez).
- Osasun arrazoiak (mediku edo profesionalaren ziurtagiri bidez).
- Ikasketa arrazoiak (tutore edo ikastetxearen ziurtagiria)
- Herritik kanpora bizitzera joan izatea (errolda ziurtagiri bidez).

Baja eskaera kontuan hartzeko, idatziz aurkeztu beharko da, eta aurkeztutako hilaren hurrengoan jarriko da indarrean. Baja aurkezten den hilabeteko kuota ordaindu egin beharko da.

Ordainketetako atalean kuota guztiak ordaintzen ez dituzten ikasleek hurrengo ikasturteko matrikula berria egiteko eskubidea galduko dute.



Indarraldia:

Tasa hauek 2022/2023 ikasturtean egongo dira indarrean.

2.- Administrazio-espeditentea jendaurrean jartzea, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz eta Andoingo Udaletxeko iragarki-taulan eta web-orrian erakutsiz, **30 eguneko** epeaz, interesadunek espeditentea aztertu eta egoki iritzitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

3.- Espeditentea jendaurrean dagoen bitartean alegaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, aipatu araudia behin-betiko izaeraz onetsita geratuko da.

4. Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko zergaren ordenantza fiskalaren aldaketa.

Ikusirik, Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Informatzaileak 2022/03/22ko bileran emandako aldeko irizpena.

Konstituzioko 140. Artikuluak udalerriei aitortzen dien autonomiaren oinarriaren gainean, Toki Jardunbideko Oinarri buruzko apirilaren 2-ko 7/1985 Legeko 4.1.a) artikulua udalerriei bere burua antolatzeko ahalmena aitortzen die.

Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Verdasco jaunak, Hirigintza, Obrak, Ingurumena eta Landa Guneko Zinegotzi Delegatuak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on, la propuesta de modificación al 95% del impuesto de Contrucciones, Intalaciones y Obras para obras que sean declaradas de especial interés municipal por concurrir circunstancias sociales, culturales, histórico-artísticas o de fomento de empleo, viene motivada para dar cumplimiento a uno de los compromisos que el ayuntamiento debe asumir, para la puesta en marcha del convenio de colaboración con el Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transporte del Gobierno Vasco para la promoción de vivienda protegida, de protección social, a desarrollar en los ámbitos de Etxeberrieta, Agiri Alai y Ama Kandida que, en breve, el ayuntamiento firmará.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren Ordenantza Fiskala aldatzeko proposamena onartzea, hasierako izaeraz.

- %95eko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

2.- Administrazio-espeditentea jendaurrean jartzea, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz eta Andoingo Udaletxeko iragarki-taulan eta web-orrian erakutsiz, **30 eguneko** epeaz, interesadunek espeditentea aztertu eta egoki iritzitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

3.- Espeditentea jendaurrean dagoen bitartean alegaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, aipatu araudia behin-betiko izaeraz onetsita geratuko da.

5. Gastuak judizioz kanpo aitortzeko proposamena.

Kontuan hartuz, oro har badakigu sektore publikoa osatzen duten administrazio desberdinen artean, tokiko administrazioa dela herritarrengandik gertuen dagoena eta, hortaz, administrazio honetara zuzentzen dituztela, lehenik eta behin, beren eskaerak.

Tokiko Administrazioak herritarrek eskatzen duten arintasunera eta eraginkortasunera egokitu behar du bere jarduna. Horregatik, zenbaitetan, eta herritarrei erantzuteko, jarduera administratiboa ez da doitzen, zorrotz-zorrotz, berez zurruna den prozedura legalera.

Zentzu horretan, aurreko ekitaldian, zenbaitetan ondasunen hornidurari eta zerbitzuen prestazioari dagozkien gastuak egin dira, guztiak udal zerbitzu desberdinen garapen arrunterako eta Udalak



kudeatutako zerbitzuen prestaziorako behar-beharrezkoak eta ezinbestekoak.

Aurrekontu-kreditu nahikorik gabe gauzatu badira ere, Udala aipatu gastuak ordaintzera behartuta dago, horiek udal aurrekontura egotzi ondoren. Legegileak berak, ezinbesteko zerbitzuak emateko beharrezkoak diren baina nolabait ere “irregularrak” diren jarduera horiek ematen direla jakinik, aipatu gastuak dagokion ekitaldiko aurrekontura egozteko aukera aurreikusten du. Egozpen hori, hasiera batean, debekatuta dago, aurrekontuaren urtekotasunaren printzipioari jarraiki, baina kredituen judizioz kanpoko aitorten espedientearen bidez izapidetzea ahalbidetzen da.

Kontuan izanik administrazioarekiko kaltetzea saihesteko eta, hortaz, administrazioaren aberaste bidegabe edo arrazoigabea saihesteko, ezinbestekoa eta derrigorrezkoa dela egindako gastu horiek ordaintzea; kontuan izanik, halaber, gastuak egungo ekitaldira egozteak.

Kontu-hartzaileak (2022/02 erref.) 22.03.16an egindako txostena ikusi ondoren.

Ikusirik, Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Informatzaileak 2022/03/22(e)ko bileran emandako aldeko irizpena.

Alkate andreak hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Kasu honetan joan den hilabetean ekarri genituen zenbait faktura onartzeko eta hain justu orain, gauza bera, aurreko ekitaldian egindako gastuak dira, bere garaian egotzi ez zirenak eta orduan aurrekontu arruntera egosteko, kredituak aurkezteko, espedientearen instrukzioa egitea proposatzen da, guztira 41.755 € izango litzateke.

“Decíamos que, como se hizo en el pleno de febrero, también se procede a la instrucción del oportuno expediente de reconocimiento extrajudicial de créditos, para la imputación al presupuesto corriente de gastos llevados a cabo en el 2021 y no han sido imputados en su momento, por importe total de 41.755 euros.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Aurreko ekitaldian egindako gastuak, bere garaian egotzi ez zirenak, aurrekontu arruntera egozteko KREDITUAK AURKEZTEKO AURKEZTEKO espedientearen instrukzioa egitea. Zenbatekoa, guztira, 41.755,74 eurokoa da, honela banakatuta:

Numero de expte	Fecha factu	Fecha reg.	Tercero	Importe	Explicación
2021-FAKT-005117-00	2021/09/15	2021/12/17	EKILAN Ingenieria eta Instalazioak SL	553,64	Solicitado por la conces.Bar Bastero en urbanismo, solicitado factura Ayto
2022-FAKT-000405-00	2021/12/31	2022/01/17	FUNDIBIDE SA	14.624,13	Presentado fuera de plazo, VB 15.02 Técnico Servicios
2022-FAKT-000641-00	2021/06/17	2022/02/01	innobasque Agencia Vasca de la Innovación	847,00	Presentado fuera de plazo, VB 16.02 Técnico Empleo (Beterri)
2022-FAKT-000682-00	2021/12/31	2022/02/07	KABIA	19.616,60	Presentado fuera de plazo, VB 08.02 Responsable Servicios Sociales
2022-FAKT-001199-00	2021/10/25	2022/03/09	Agirre Arostegi Jose Manuel	556,50	Presentado fuera de plazo
2022-FAKT-001196-00	2022/01/31	2022/03/09	Gorochategi Iraola Begoña	5.557,87	Presenta 12 facturas fuera de plazo, y luego unifica todo 2022 (*)
				41.755,74	

(*)Emisión facturas no correcto y debería aplicarse el art.88.4 DF 102/1992 IVA

6. Ama Kandida 5 HEAren Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren testu bateratua behin betiko izaeraz onartzeko proposamena.

Alkateak, 2020ko martxoaren 13ko 167/2020 Ebazpenaren bidez, “Ama Kandida” 5 HEAren Hiri Antolamenduko Plan Berezia onartu zuen hasierako izaeraz, ebazpenean bertan adierazitako baldintzekin, eta plan hori, planaren ingurumen-azterketa estrategikoa eta dagokion administrazio-espediente jendaurrean jarri zituela 45 egun balioduneko epean, iragarkia argitaratuz udaletxeko iragarki-taulan, 2020ko martxoaren 25eko 57 zenbakiko eta 2020ko apirilaren 2ko 63 zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udal web orrian eta 2020ko ekainaren 4ko Diario Vasco eta Noticias de Gipuzkoa egunkarietan. Hori guztia, interesatuek egokiak irizten zituzten alegazioak egin zituzten.

Jendaurreko informazioaren izapidarekin batera, kontsulta egin zitzaizen eragindako administrazio publikoei eta aldiz aurretik kontsulta egin zitzaizen interesdunei, 45 egun balioduneko epean egoki irizitako txostenak eta alegazioak egin zitzaizen, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikuluan



xedatutakoaren arabera. Dokumentua, era berean, eraginpeko administrazio sektorialeki bidali zitzairen, beharrezko txostenak egin zitzaizten

Dokumentuari hasierako onespena emateko erabakia plan bereziaren eremuan sartutako lursailen jabeek jakinarazi zitzaizten.

Espedientearen jendaurreko informazio-aldian, 2020ko abuztuaren 5ean amaitu zena, alegazioak aurkeztu zituzten Kaletxiki 15eko etxebizitzaren eta garajeen jabeekideen erkidegoak eta Britac Proyectos SL enpresak, Udalaren Idazkaritzak 2020ko abuztuaren 26an emandako ziurtagirian ageri den bezala.

Ikusirik espediente administratiboan jasotako txostenak, Alkateak, 2021eko abuztuaren 11ko 1518/2021 zenbakiko Ebazpenaren bitartez, aurkeztutako alegazioak erantzun zituen, ebazpen berean esandako zentsuan, eta Britac Proyectos SL enpresari jakinarazi zion, plan berezia behin-behineko izaeraz onartu baino lehenago, honako dokumentu hauek aurkeztu behar zituela: a) Testu bategina, non dokumentua hasieran onesteko erabakian adierazitakoa baldintzak eta baietsitako alegazioen eta administrazio-espeditentean dauden aldeko txosten sektorialetan adierazitakoaren ondoriozko doikuntzak jasoko diren eta b) Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aipatzen den laborpen-dokumentua aurkeztu beharko da. Bertan, sustatzaileak deskribatuko du planaren edo programaren azken proposamenean ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta irismen-dokumentuari egokitzen zaizkion, egindako kontsulten emaitzak eta horiek nola hartu diren kontuan.

Alkateak, 2021eko azaroaren 22an emandako 2110/2021 zenbakiko Ebazpenaren bitartez, behin-behineko izaeraz onartu zuen Andoingo “Ama Kandida” 5 HEAREN Hiri Antolamenduko Plan Berezia, baldintza honekin: Plan Berezia behin betiko izaeraz onartu aurretik, testu bategina aurkeztu beharko da, eta bertan jasoko dira ebazpen honen I eranskinean adierazitako zuzenketak eta, hala badagokio, ingurumen-organoaren ingurumen-adierazpen estrategikoen ondorioz egin beharreko aldaketak eta/edo doikuntzak. Ebazpen berean erabaki zen ebazpena, plan berezia eta ingurumen-ebaluazioa arautzen duen abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1.d) artikuluan eskatutako laborpen-dokumentua igortzea Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailari dagokion ingurumen-adierazpen estrategikoa egiteko. Ebazpen hori sustatzaileari eta gainontzeko jabeek jakinarazi zitzaizten.

2022ko urtarrilaren 17an jaso zen udaletxean Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariak emandako ebazpena, non Andoingo “Ama Kandida” 5 HEAREN Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa formulatzen den. Ebazpen hori argitaratu zen 2022ko otsailaren 10ean Euskal Herriko Aldizkari Ofizialeko 29 zenbakiko atalean.

Soroa Arquitectos SLP enpresaren izenean diharduen Pedro Izaskun Pérez jaunak 2022ko otsailaren 3an aurkeztu zuen “Ama Kandida” 5 HEAREN Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren testu bategina.

Udal arkitektoak 2022ko otsailaren 23an egindako txostena ikusirik, hirigintzako zinegotzi ahalduaren 2022ko otsailaren 28ko idatziaren bitartez, jakinarazi zaió sustatzaileari, dokumentua behin betiko izaeraz onartu aurretik, idatzi berean jasotako doikuntzak jasotzen duen testu bategin berria aurkeztu beharko dela.

2022ko martxoaren 2an aurkeztu da udaletxe honetan testu bategin berria, non 2022ko otsailaren 28ko idatzian eskatutako doikuntzak jasotzen diren.

Ikusirik udal arkitektoak 2022ko otsailaren 23an eta martxoaren 4an eta hirigintza eta zerbitzuetako administrazio orokorreko teknikariak 2022ko martxoaren 8an egindako aldeko txostenak.

Ikusirik, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune Batzordearen 2022/03/17 datako irizpena.

Verdasco jaunak, Hirigintza, Obras, Ingurumen eta Landa Guneko Zinegotzi Delegatuak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bien. En marzo de 2020, mediante resolución se aprobó inicialmente el plan especial de Ama Kandida, fué sometido a información pública durante un periodo de 45 días. En ese tiempo todos los interesados pudieron formular las alegaciones que consideraran pertinentes, simultáneamente se formularon las consultas a las administraciones públicas afectadas y a las administraciones sectoriales también, para que emitieran los informes pertinentes.

“Durante el período de exposición pública se recibieron alegaciones por parte de los copropietarios de



Kaletxiki ° 15 y de la empresa Britac Proyectos.

“En agosto de 2021, se resolvieron las alegaciones recibidas y se informó a la promotora para que previo a la aprobación provisional del Plan Especial debería presentar un texto refundido y un documento de evaluación ambiental que recogiera los aspectos ambientales resultado de las consultas realizadas.

“En noviembre de 2021, mediante resolución se aprobó provisionalmente el plan especial con la condición de que previo a la aprobación definitiva presentara el preceptivo texto refundido, además, también, se acordó remitir esa resolución, junto con el plan especial y el documento resumen requerido de evaluación ambiental al departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco para que emitiera la correspondiente declaración mediambiental estratégica.

“En marzo de este año se ha presentado el Texto Refundido definitivo por parte de la promotora e indicar que cuenta con los informes favorables tanto del Arquitecto Municipal, como de la Técnico de Administración General de departamento de Urbanismo y Servicios, por lo tanto se somete a consideración del pleno la aprobación definitiva del Plan Especial de Ordenación Urbana de Ama Kandida.”

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Behin betiko izaeraz onestea Britac Proyectos SL enpresaren izenean diharduen Felipe Gómez Arriaran jaunak 2022ko martxoaren 2an aurkeztutako Andoingo “Ama Kandida” 5 HEaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren testu bateratua.

2.- Erabaki hau, Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren testu bateratuarekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea, hirigintza-plangintzaren administrazio-erregistroan gordailatu dezaten, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.3 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

3.- Behin betiko onespenez erabaki hau, aipatu Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren testu bategineko hirigintza-araudiarekin eta ordenantzekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko web orrian argitaratzea.

4.- Era berean, behin betiko onespenez erabakia Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapen gehien duten egunkari edo egunkarietan argitaratzea.

5.- Erabaki hau jakinaraztea Britac Proyectos SL enpresaren izen eta ordezkapenean jarduten duen Felipe Gómez Arriaran jaunari, nola baita ere administrazio-espeditantean interesatu gisa agertzen diren beste guztiei. Jakinarazpenean azalduko zaie, halaber, administrazioarekiko auzi-helegitea aurkez dezaketela Bilbon dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean, akordioaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazten denetik bi hilabeteko epean.

6.- Erabaki honen berri ematea Errenta eta Ordainarazpen lantsialari.

7. Andoingo HAPOko 48 Illaramendi HAeko b.04.a eta b.04.b lursailak aldatzeko xehetasunazterlana behin betiko izaeraz onartzea.

Kontuan izanik, 2021eko urriaren 14an, Martín Balda Goñi jaunak, Manesbal Navarra SL enpresaren ordezkari gisa, Andoingo HAPOko 48 Illaramendi HAeko b.04.a eta b.04.b lursailak aldatzeko xehetasunazterlana aurkeztu zuela. Azterlan horren sustatzaileak Manesbal Navarra SL eta Servicios de Automoción Sarriguren SL enpresak dira eta dokumentua Blanca Balda Sevilla arkitektoak idatzi zuen 2021eko urrian.

Ikusirik udal arkitektoak 2021eko urriaren 20an egindako txostena, 2021eko urriaren 21eko idazkiaren bidez, eskatzaileari jakinarazi zitzaion aipatutako proiektua izapidetzeko idazkian bertan aipaturiko gauzak zuzendu behar zirela.

Kontuan harturik, 2021eko urriaren 21ean, Martín Balda Goñi jaunak, Manesbal Navarra SL enpresaren ordezkari gisa, Andoingo HAPOko 48 Illaramendi HAeko b.04.a eta b.04.b lursailak aldatzeko xehetasunazterlana aurkeztu zuen. Azterlan hori Blanca Balda Sevilla arkitektoak idatzi zuen 2021eko urrian eta bertan



Udalak eskatutako aldaketak jasotzen dira. Dokumentu hau 2021eko urriaren 14an aurkeztutako dokumentuaren ordeztuz aurkezten da.

Ikusirik espediente administratiboan agertzen diren txostenak, Alkatetzak, 2021eko azaroaren 22an emandako 2017/2021 zenbakiko ebazpenaren bitartez, hasierako izaeraz onartu zuen aipaturiko xehetasun-azterlana, honako baldintza honekin: dokumentua behin betiko onartu baino lehenago, b.04.b partzelako hirigintza-fitxa zaharra aldatu beharko da, adieraziz dagokion sestra gaineko hirigintza-erakigarritasuna 3.200,00m² (t) dela eta ez aurkeztutako dokumentuan adierazten den 2.040,00m² (t).

Kontuan izanik, ebazpena interesatuari jakinarazi zitzaioela eta xehetasun-azterketa eta espediente administratiboa jendaurrean jarri zirela. Horretarako iragarki argitaratu ziren udaleko iragarki taulan, 2021eko abenduaren 10eko 235 zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2021eko abenduaren 16ko Diario Vasco eta Gara egunkarietan eta udal web orrian. 2022ko urtarrilaren 18an bukatu zen jendaurreko epe horretan ez zen inolako alegaziorik aurkeztu, udaleko idazkariak egindako ziurtagirian egiaztatzen duen bezala.

Kontuan harturik, ebazpena eta xehetasun-azterketa Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentura eta URA-Ur Agentziara bidali zirela, lege sektorialean aurreikusitako txostenak egin zitzaizten.

Kontuan harturik, 2021eko azaroaren 25ean jaso zela udaletxe honetan Telekomunikazioen eta Ikus-entzunezko Komunikazio Zerbitzuen Antolamenduaren Zuzendaritza Nagusiak egindako aldeko txostena.

Kontuan izanik, 2021eko abenduaren 22an jaso zela Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak emandako aldeko txostena.

Kontuan izanik, 2022ko urtarrilaren 20an jaso zela Sustapen Ministeritzako Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiak egindako aldeko txostena.

Kontuan harturik, 2022ko martxoaren 15ean jaso direla Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak eta Ura-Ur Agentziak egindako aldeko txostenak, non hainbat baldintza jasotzen diren.

Kontuan izanik, Manesbal Navarra SL enpresak 2022ko martxoaren 17an aurkeztu duela xehetasun-azterketaren memoria aldatuta, non b.04.b lursailaren fitxa urbanistiko zaharra aldatzen den, dokumentua behin behineko onartu zuen ebazpenean eskatzen zen bezala.

Ikusirik hirigintza eta zerbitzuetako administrazio orokorreko teknikariak eta udal idazkariak 2022ko martxoaren 21ean egindako aldeko txostenak.

Ikusirik, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune Batzordearen 2022/03/24 datako irizpena.

Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Verdasco jaunak, Hirigintza, Obras, Ingurumen eta Landa Guneko Zinegotzi Delegatuak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“El pasado mes de octubre la empresa Manesval Navarra presentó el Estudio de Detalle para la modificación de la distribución de las parcelas objeto del estudio. A dicho Estudio de Detalle se solicitó una serie de subsanaciones por parte del Arquitecto Municipal. Recibidas las subsanaciones requeridas en ese informe se sometió a aprobación inicial en el mes de noviembre a su vez, ese Estudio de Detalle se sometió también a información pública durante el período preceptivo, durante el cual no se recibió ningún tipo de alegación, fué remitido también a las diferentes administraciones sectoriales para que emitieran los informes pertinentes. Recibidos ya los informes de las administraciones sectoriales y visto, también, los informes favorables, tanto del Secretario Municipal como de la Técnico de Administración General del departamento se somete a aprobación definitiva.”

Jarraian, Usandizaga andreak, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bakarrik esan beste zenbait plenoetan azaldu dugun bezala eta arrazoi horri jarraituz eta Illarramendiko garapenaren inguruan esan izan dugunagatik, bai punto honetan eta bai hurrengoan aurka bozkatuko dugu.”

Jarraian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Nosotros nos vamos a abstener, porque, bueno, siempre hemos dicho que bueno con todos los informes y todo favorable tampoco creemos que podemos votar en contra, pero, tampoco tenemos claro que nos guste el plan, entonces nos vamos a abstener.”

Verdasco jaunak, hartu du hitza, honakoa erantzuteko:

“Solamente indicar que este desarrollo urbanístico está impulsado por una promotora privada, la cual es la que decide que empresas se instalan en el municipio y la labor del ayuntamiento es la de velar porque tanto técnicamente, como jurídicamente se cumplan todos los requisitos que la normativa urbanística establece y



también, indicar que la llegada de nuevas empresas al municipio es una buena noticia y importante también para el municipio.”

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, EH Bildu udal taldeko zinegotzien kontrako botoekin eta Elkarrekin Podemos udal taldeko zinegotziaren abstentzioarekin, **honakoa erabaki du:**

1.- Behin betiko izaeraz onestea MANESBAL NAVARRA SL enpresaren izenean diharduen Martín BALDA GOÑI jaunak 2021eko urriaren 21ean aurkeztu zuen Andoingo Hiri Antolamenduko Plan Orokoreko HEA 48 ILLARRAMENDIko b.04.a eta b.04.b lursailak aldatzeko xehetasun-azterketa, Blanca Balda Sevilla arkitektoak 2021eko urrian idatzia. Behin betiko onarpenaren erabakian Ura-Agencia Vasca del Agua-ren txostenean jasotako baldintza jaso beharko da, hau da, xehetasun-azterketa honetan burutuko diren lanen exekuzio proiektuan hurengo zehaztapan lotesleak bete beharko dira:

- Hornidura eta saneamendua kudeatzen duen erakundearen ziurtagiria, garapen proposamena berriei ekiteko azpiegitura nahikoak daudela bermatzen duena.
- Dokumentazio grafikoa, hondakin-urak inguruko ur beltzen saneamenduko udal-sarera nola konektatzen diren eta “Andoainen Ziako errekaen saneamendu-proiektua” delakoan egitea aurreikusten den kolektorera nola konektatzen diren adierazten duena. Girder Ingeniería enpresak idatzi zuen 2012an. Era berean, aditzera eman beharko du euri-urak Ziako errekaen trazadura berriarekin lotuko direla etorkizunean, Andoingo udalerriko hiri-eremutik igarotzen den Ziako errekaen uholdeen aurkako defentsarako proiektuan gauzatu beharrekoak.
- Hondakin-urak jasotzen dituen saneamendua Adunako Uraldeko HUARI konektatuta egotea baldintzatu eta bermatzen duen ziurtagiria.

2.- Behin betiko onespenez erabaki hau, aipatu xehetasun-azterketa, hirigintza-araudiarekin eta ordenantzekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

3.- Erabaki hau jakinaraztea MANESBAL NAVARRA SL enpresaren izen eta ordezkapenean jarduten duen Martín BALDA GOÑI jaunari, nola baita ere administrazio-espeditentean interesatu gisa agertzen diren beste guztiei. Jakinarazpenean azalduko zaie, halaber, administrazioarekiko auzi-helegitea aurkez dezaketela Bilbon dagoen Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Aretoan bertan adieraziko den epearen barruan.

8. Andoingo HAPOko 48 Illaramendi HAeko b.01.b lursaileko lerrokadurak aldatzeko xehetasun-azterlana behin betiko izaeraz onartzea.

Kontuan izanik, 2021eko abuztuaren 20an, Martín Balda Goñi jaunak, Balfernorte SL enpresaren ordezkari gisa, Andoingo HAPOko 48 Illaramendi HAeko b.01.b lursaileko lerrokadurak aldatzeko xehetasun-azterlana aurkeztu zuela. Azterlan hori Blanca Balda Sevilla arkitektoak idatzi zuen 2021eko abuztuan.

Ikusirik espediente administratiboan agertzen diren txostenak, Alkatetzak, 2021eko azaroaren 22an emandako 2019/2021 zenbakiko ebazpenaren bitartez, hasierako izaeraz onartu zuen aipaturiko xehetasun-azterlana.

Kontuan izanik, ebazpena interesatuari jakinarazi zitzaioela eta xehetasun-azterketa eta espediente administratiboa jendaurrean jarri zirela. Horretarako iragarkiak argitaratu ziren udaleko iragarki taulan, 2021eko abenduaren 10eko 235 zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2021eko abenduaren 16ko Noticias de Gipuzkoa eta Diario Vasco egunkarietan eta udal web orrian. 2022ko urtarrilaren 18an bukatu zen jendaurreko epe horretan ez zen inolako alegaziorik aurkeztu, udaleko idazkariak egindako ziurtagirian egiaztatzen duen bezala.

Kontuan hartuta, ebazpena eta xehetasun-azterketa Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentura eta URA-Ur Agentziara bidali zirela, lege sektorialean aurreikusitako txostenak egin zitzaizten.

Kontuan izanik, 2021eko azaroaren 25ean jaso zela udaletxe honetan Telekomunikazioen eta Ikus-entzunezko Komunikazio Zerbitzuen Antolamenduaren Zuzendaritza Nagusiak egindako aldeko txostena.



Kontuan izanik, 2021eko abenduaren 14an jaso zela Sustapen Ministeritzako Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiak egindako aldeko txostena.

Kontuan harturik, 2021eko abenduaren 22an jaso zela Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak emandako aldeko txostena.

Kontuan harturik, 2022ko martxoaren 15ean jaso direla Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak eta Ura-Ur Agentziak egindako aldeko txostenak, non hainbat baldintza jasotzen diren

Ikusirik, Hirigintza eta Zerbitzuetako Administrazio Orokorreko Teknikariak 2022ko martxoaren 16an eta udal idazkariak 2022ko martxoaren 21ean egindako aldeko txostenak.

Ikusirik, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune Batzordearen 2022/03/24 datako irizpena.

Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Verdasco jaunak, Hirigintza, Obras, Ingurumen eta Landa Guneko Zinegotzi Delegatuak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Este caso es un Estudio de Detalle. Se trata de una modificación de alineaciones de la parcela b.01.b, tiene los informes favorables también del Secretario Municipal, como de la TAG del departamento, en su momento también se sometió a su aprobación inicial, se solicitaron los preceptivos informes sectoriales, cuenta con todos los informes recibidos y por lo tanto se somete a aprobación por parte del pleno de la aprobación definitiva de este estudio de detalle.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andreak, proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, EH Bildu udal taldeko zinegotzien kontrako botoekin eta Elkarrekin Podemos udal taldeko zinegotziaren abstentzioarekin, honakoa erabaki du:

1.- Behin betiko izaeraz onestea Balfernorte SL enpresaren izenean diharduen Martín Balda Goñi jaunak 2021eko abuztuaren 20an aurkeztu zuen Andoingo Hiri Antolamenduko Plan Orokoreko Andoingo HAPOko HEA 48 Illarramendi hiriguneko b.01.b partzelaren lerrokadurak aldatzeko xehetasun-azterketa, Blanca Balda Sevilla arkitektoak 2021eko abuztuan idatzia. Behin betiko onarpenaren erabakian Ura-Agencia Vasca del Agua-ren txostenean jasotako baldintza jaso beharko da, hau da, xehetasun-azterketa honetan burutuko diren lanen exekuzio proiektuan hurrengo zehaztapan lotesleak bete beharko dira:

- Hornidura eta saneamendua kudeatzen duen erakundearen ziurtagiria, garapen proposamena berriei ekiteko azpiegitura nahikoak daudela bermatzen duena.

- Dokumentazio grafikoa, hondakin-urak inguruko ur beltzen saneamenduko udal-sarera nola konektatzen diren eta “Andoainen Ziako errekaen saneamendu-proiektua” delakoan egitea aurreikusten den kolektorera nola konektatzen diren adierazten duena. Girder Ingeniería enpresak idatzi zuen 2012an. Era berean, aditzera eman beharko du euri-urak Ziako errekaen trazadura berriarekin lotuko direla etorkizunean, Andoingo udalerriko hiri-eremutik igarotzen den Ziako errekaen uholdeen aurkako defentsarako proiektuan gauzatu beharrekoak.

- Hondakin-urak jasotzen dituen saneamendua Adunako Uraldeko HUari konektatuta egotea baldintzatu eta bermatzen duen ziurtagiria.

2.- Behin betiko onespene-erabaki hau, aipatu xehetasun-azterketa, hirigintza-araudiarekin eta ordenantzekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

3.- Erabaki hau jakinaraztea Balfernorte SL enpresaren izen eta ordezkapenean jarduten duen Martín Balda Goñi jaunari, nola baita ere administrazio-espeditentean interesatu gisa agertzen diren beste guztiei. Jakinarazpenean azalduko zaie, halaber, administrazioarekiko auzi-helegitea aurkez dezaketela Bilbon dagoen Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Aretoan bertan adieraziko den epearen barruan.

9. Udalerriko ikastetxeei zuzendutako prebentzio jardueretarako laguntza ekonomikoen ordenantza, hasierako izaeraz, onartzea

Ikusirik, *Udal ikastetxeentzako prebentzio jardueretarako dirulaguntzen Ordenantzaren* proposamena.

Ikusirik, Idazkariak 2022ko martxoaren 21an egindako txostena.



Ikusirik, Gizarte Zerbitzuak Batzorde Irizpenemaileak 2022ko martxoaren 22an emandako irizpena. Alkate andreak, hartu du hitza eta honakoa esan du.

“Kasu honetan, 90eko hamarkadaz geroztik Andoaingo udaleko Gizarte Zerbitzuetako sailak ikastetxei finantzatzen dizkie prebentziorako jarduera, guztiok dakizuten bezala.

“Decíamos que desde la década de los 90 los Servicios Sociales del ayuntamiento de Andoain viene financiando a los centros escolares las actividades que van dirigidas a prevención.

“Bere garaian udalak ulertu zuen ez zela bat beharrezkoa ordenantza bat onartzea, azkenean leia askea bermatzen baitzen eta izan ere ikastetxe guztiei jakinarazten zitzairen dirulaguntza aurkezteko epea irekiko zela eta laguntza jasotzeko baldintzak ezagutzen zituzten.

“Decíamos que en su día el ayuntamiento entendió que no era necesario aprobar una ordenanza ya que se garantizaba la libre concurrencia, dado que todos los centros escolares a todos ellos se les comunica el plazo de presentación de la subvención y también eran concededores de las condiciones que tienen que cumplir para acceder a las mismas.

“Baina, une honetan eta horrela eskatu digu Idazkariak beharrezkoa zela laguntza horiek arautuko dituen ordenantza bat onartzea eta horrexegatik hain zuzen ere egin da hau eta gaur ekartzen da Osoko Bilkura honetara onartua izan dadin.

“Decíamos que en este momento se entiende por parte del Secretario que es necesario aprobar una ordenanza que regule estas ayudas y es por ello que se ha elaborado la misma y se trae al Pleno hoy para su aprobación.”

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate andrearen eta Udalbatzaren Osoko Bilkurak, aho batez, PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko bogoekin, honako erabaki du:

1. Onestea, hasierako izaeraz, *Udal ikastetxeentzako prebentzio jardueretarako dirulaguntzen* Ordenantza.
2. Administrazio-espeditentea jendaurrean jartzea, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Andoaingo Udaletxeko iragarki-taulan eta www.andoain.eus Udal web-orrian argitaratuz, **30 eguneko** epeaz, interesdunek espeditentea aztertu eta egoki iritzitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Espeditentea jendaurrean dagoen bitartean alegaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, aipatu ordenantza behin-betiko izaeraz onetsita geratuko da

10. Tratu On plana onartzeko proposamena.

Kontuan hartuz Haur eta Nerabeen Eskubideen Adierazpena eta Haurtzaroarekiko Tratu Ona bermatzeko konpromisoaren Udal Adierazpena, 2020ko abenduaren 17ko Osoko Bilkuran aho batez onartua.

Ikusirik, Gizarte Zerbitzuen Arduradunak 2022ko martxoaren 17an emandako txostena.

Ikusirik, Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Irizpenemaileak 2022ko martxoaren 22ko bileran emandako aldeko irizpena.

Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Alkatetza honek eta udaleko Gizarte Zerbitzuen sailak dituen helburu nagusietako bat, hain zuzen erere da, Andoaingo haur eta nerabe guztien ongizatea bermatzea eta ingurune seguruetan hazi eta hezi ahal izan daitezela eta tratu ona gure erkidego osoaren ezaugarria izan dadila.

“Decíamos que uno de los principales objetivos que tiene esta Alcaldía y el departamento de Servicios Sociales del ayuntamiento, es asegurar el bienestar de todas las niñas, niños y adolescentes de Andoain, para que pueden crecer y educarse en entornos seguros, donde el buen trato sea una característica de toda nuestra comunidad.

“Horretarako, azken hiru urte hauetan egindako lan komunitarioan udal sailak, ikastetxeak, gizarte erakundeak, gurasoak, baiono, batez ere, Andoaingo haur eta nerabeek parte hartu dute haurrei tratu ona emateko tokiko planaren prestaketan.



“Para ello, en un trabajo comunitario que se ha llevado a cabo en los últimos tres años, diferentes departamentos municipales, centros escolares, entidades sociales, padres y madres, pero, sobre todo, las niñas, niños y adolescentes de Andoain, han participado en la elaboración de la política y el plan local por el buen trato a la infancia que aquí les presento.

“Plan honek, haur eta nerabeen eskubideak tokiko politiken erdigunean jartzen ditu bere ahotsa izan dezaten eta hartzen ditugun erabakietan aktiboki parte hartu dezaten.

“Esta proceso pone los derechos de niñas, niños y adolescentes en el centro de nuestras políticas locales de forma que tengan voz propia y sean parte activa en las decisiones que vayamos tomando.

“Plan honek, zortzi hildu estrategiko ditu eta batzordean aipatu ziren eta esplikatu izan zen, batez ere, aurrera eraman duen enpresaren aldetik, baina, bueno, izenburuak aipatuko ditut.

“Lehenengoa: Haur eta nerabeen parte-hartzea. Bigarrena: Haur eta nerabeentzako testu inguru seguruak eta tratu honekoak sortzea. Hirugarrena: Gizarte sentsibilizatzea komunitatean tratu onaren cultura sustatuz. Laugarrena: Gurasotasun positiboa. Bosgarrena: Haur eta nerabeen autobabesa. Seigarrena: Tokiko eragileen maila sendotzea, errealitatea eta jarduerak aztertzeko. Zazpigarrena: Haur eta nerabeei egokitutako programa egonkorak egitea eta zortzigarrena: Berriazko prebentzio ekintzak garatzea, interneten eta sare sozialetan.

“Decía que, este plan tiene ocho líneas estratégicas, que fueron desarrolladas en la comisión de Servicios Sociales por el técnico de la empresa que ha elaborado el plan y bueno, vamos a citar aquí los títulos de las ocho líneas estratégicas.

“Primero: La participación de niñas, niños y adolescentes. Segundo: La creación de contextos seguros y de buen trato. Tercero: La sensibilización social, promoviendo una cultura de buen trato a la comunidad. Cuarto: La parentalidad positiva. Quinto: La autoprotección de niñas, niños y adolescentes. Sexto: La consolidación de una mesa de agentes locales que analicen la realidad y las actuaciones. Séptimo: La realización de programas estables y adaptados a niñas, niños y adolescentes y el octavo: Desarrollo de acciones específicas, preventivas en el contexto de internet y de las redes sociales.

“Plan honek, markatu eta gidatuko gaitu egin beharreko ekintzetan eta era berean bideratu behar ditugun baliabideak definituko dizkigu. Haur eta nerabeen eskubideak gure tokiko politiken erdigunean jar ditzagun eta hauxe da gure eta Andoingo udalerriaren konpromisoa.

“Este plan nos va a marcar y guiar en las actuaciones a realizar y también nos va a definir los recursos que debemos ir destinando para asegurar que situemos los derechos de niñas, niños y adolescentes en el centro de todas nuestras políticas. Este sería nuestro compromiso y el del municipio de Andoain.

“Komentatu genuen, baita ere, gaur onartzera ekartzen dugula, baina, apirilaren 29an gustatuko litzaiguko herritarrei aurkeztea eta hain zuzen ere, hori egitea, haur eta nerabeen aldetik.

“Decíamos que la intención es, someter a votación hoy el plan, pero, nuestra idea sería que luego el día 29 de abril sea presentado a la comunidad, a toda la ciudadanía de Andoain y sean, justo, las niñas, niños y adolescentes que lo han ido elaborando los que lo presenten.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate andreak eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zientzietan alderatu ondoren, honakoa erabaki du:

1. Onartzea Haur eta Nerabeei Tratu Ona emateko tokiko Plana.
2. Plana abian jartzearekin batera egin beharreko jarduerak eta Gizarte Zerbitzuen arduradunaren txostenean jasotakoak onartzea.
3. Akordio hau Hezi Zerb Elkartearen enpresari jakinaraztea.
4. Akordio honen berri ematea Kultura, Berdintasuna, Gazteria eta Kirola lan saili.

11. 2022/456 zk.ko Alkatetzako Ebazpena berresteko proposamena.

Alkate andreak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Kasu honetan txakurrekin zerikusia du, 2022ko urtarrilaren 13an bere jabetzako bi zakurrak udalerrira



honetako Ondarreta kalean bide erdian solte zeundelako, bertatik pasatzen ziren ibilgailuentzako arriskua handia sortuz.

“Decíamos que la resolución tiene que ver los perros, dado que a las 11.00hora del día 13 de enero de 2022, dos perros se encontraban suelto en el centro la calzada de Ondarreta causando un grave peligro para los vehículos que circulaban por la misma.

“Kontuan izanik, Animaliak Edukitzeko eta Babesteko Udal Ordenantza Arautzailearen 37. H) artikulua, arau hauste larritzat hartzen da animaliak jagon eta gordetzen behar den zuhurtasuna ez izatea, honek kalteak ekar ditzakelarik.

“Considerando el artículo 37. H) de la Ordenanza Municipal de Tenencia y Protección de Animales que, califica como infracción grave el no mantener la debida diligencia en custodia y guarda de animales que pueden causar daños.

“Instrukzio espedientea hasiko litzateke, ordenantzaren 39.b) artikulua, arau uste larria 300, 51 euroko eta 1.502,53 euroko bitarteko ixunarekin zigortzen direla. Ondoren erabakiko zenbatekoa izango den.

“Considerando el artículo 39. B) de la referida ordenanza, sanciona estas infracciones graves con una multa entre 300,51 euros a 1.502,53 euros.

“Orduan gaur izango litzateke espediente zigortzailea irekitzea.

“Hoy se trata de la incoacción del expediente sancionador correspondiente.”

Alkatea andreak, 2022ko 456 zk.ko ebazpenaren berri eman du, zeinaren bidez, CVR jaunari espediente zehatzailea irekitzea erabakitzen da, 2022ko urtarrilaren 13an bere jabetzako bi zakurrak udalerrri honetako Ondarreta kalean bide erdian solte zeundelako, bertatik pasatzen ziren ibilgailuentzako arriskua handia sortuz, animalia jagon eta gordetzean behar den zuhurtasuna izan gabe.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, berretsi du.

12.2022/457 zk.ko Alkatetzako Ebazpena berresteko proposamena.

Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Kasu honetan, gai berbera da, 2022ko urtarrilaren 13an, ordubiak bederatzi gutxitan, beste txakurra solte egoteagatik Belabi kalean.

“Decimos que esta resolución también va en la misma línea, único que sería el día 13 de enero a las 13.51 horas, un perro que se encontraba suelto en el centro de la calzada en Belabi.”

Alkatea andreak, 2022ko 457 zk.ko ebazpenaren berri eman du, zeinaren bidez, OLGS jaunari espediente zehatzailea irekitzea erabakitzen da, 2022ko urtarrilaren 13an bere jabetzako zakurra udalerrri honetako Belabi kalean bide erdian solte zeundelako, bertatik pasatzen ziren ibilgailuentzako arriskua handia sortuz, animalia jagon eta gordetzean behar den zuhurtasuna izan gabe.

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, berretsi du.

13.EAJ/PNV udal taldeak 2022.03.25ean aurkeztuatzeko Saharari buruzko mozioa.

Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza eta mozioa irakurri du, honakoa diona:

“Espainiako Estatuak, arrazoi historiko, politiko eta juridikoengatik, erantzukizun handia dauka bizi-bizi dirauen Mendebaldeko Saharako gatazka politikoan.

“Izan ere, 1975an, Hagako Nazioarteko Auzitegiak legez kanpoko jo zituen ‘Madrilgo Akordioak’. Ondorioz, Marokok ez dauka subiranotasunik Mendebaldeko Saharan, eta okupazioa legez kanpoko da erabat.

“Duela hamarkada batzuk, Nazio Batuen Gutunean jasotzen denarekin bat etorritik, NBEak



Mendebaldeko Saharaz adierazi zuen “Lurralde ez Autonomoa” dela, gobernu propioa osotasunean eskuratu ez duten herrien lurraldeei ematen zaien izendapenaren arabera. Afrika osoan, Mendebaldeko Saharako da oraindik etenda dagoen estatutu post kolonial bakarra.

“Halaber, Nazio Batuen Erakundeak Espainiako Gobernuari etengabe erreklamatu dio potentzia kolonial administratzailea izanik –‘de iure’ ere bai Auzitegi Nazionalak 2014an ebatzi zuen autoaz geroztik–, ahalegindu dadila behar adina Saharako Herriak bere autodeterminazio eskubidea erabil dezan erreferendumaren bidez.

“Espainiako Gobernuaren aldebakarreko erabaki berri hau ez da jarrera sinesgarria, ezta errealista ere, izaera politikoko gatazka hau konpontzeko. Horiek horrela:

1- “Andoingo Udalak erabat arbuiatzen du Espainiako Gobernuko agintariak Mendebaldeko Saharako gatazka politikoa inguruan jarrera errotik aldatu izana, historian inoiz ez bezala. Aldaketa honek esan nahi du Marokok Mendebaldeko Sahara erabat bereganatzeko dituen asmo eta ambizioekin bat egiten duela Espainiako Gobernuak.

2- “Andoingo Udalaren ustez, Espainiako Gobernuaren azken jarrera honek erabat urratzen ditu Nazioarteko Zuzenbidea, Nazio Batuen Gutunaren printzipio eta baloreak eta Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren ebazpenak, irtenbide politiko bidezko eta iraunkorra aldarrikatzen baitute, alde bien artean adostua eta Saharako Herriaren borondatea askatasun osoz adierazteko eskubidea gauzatzuz amaitu beharko litzatekeena.

3- “Andoingo Udalak eskatzen die Espainiako Estatuari eta Europar Batasunari berari EBko Justizia Auzitegiak emandako ebazpenak errespetatzeko. Ebazpen horien arabera, Mendebaldeko Saharako era guztietako baliabide naturalak Saharako Herriari dagozkio eta, haren baimenik gabe, ezin ditu inork erabili.

4- “Andoingo Udalak inplikaturako alde guztiei eskatzen die uko egiteko probokaziozko edo indarrezko edozein ekintzari; eta konpromisoa hartzeko elkarrizketa eta negoziazio prozesuarekin jarraitzeko, Mendebaldeko Saharan Erreferendumerako Nazio Batuen Misioarekin (MINURSO) hitzartutako akordioak erabat errespetatuz.

5- “Andoingo Udalak bere lurraldea okupatuta duen herriaren tragedia aitortzen du; baita basamortuan bizirautea lortzen duten errefuxiatuena ere. Ondorioz, Andoingo herritarrei dei egiten die jarrai dezatela Mendebaldeko Saharako eta Tinduf-eko kanpamentuetako egoera humanitarioa hobetzeko laguntza eskaintzen, eta besteak beste *Hurria Sahara* elkarteari, orain inoiz baino gehiago, sostengua ematen.”

Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Alvarez jaunak, EH Bildu udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Duela hilabete bat, azkenengo udalbatzak, Hurria-Saharak aurkeztutako mozio bat ekarri genuen eta guztiok, aho batez, onartu genuen eta, mozio horretan, besteak beste, honelako puntuak onartu genituen.

“Berrito salatzen dugu Marokok Mendebaldeko Saharan duen presentzia legez kanpokoa dela eta ezin duela eragin juridiko eta politikorik izan Saharar herriak autodeterminaziorako eta independentziarako duen eskubidea kaltetzeko eta, horrez gain, eskaeretan Espainiako gobernuari, besteak beste, honako hau eskatu genion. Ofizialki adierazi dezala Madrilgo akordioak erabat deusezak direla eta adierazpen horrekin bat etorritz, Saharak herriak bere autodeterminaziorako duen eskubide legitimoa defendatzeko beharrezkoak diren ekimen politiko guztiak sustatuko dituela eta, duela egun batzuk Espainiako gobernuak egin zuen ekimen politikoarekin, ba...., justu guk eskatu genionaren kontra egin zuen eta Marokori arnasa eman zion eta Saharar herria are gehiago estutu zuen.

“Gure ustez, Saharak eta estaturik gabeko munduko nazio guztiek, autodeterminaziorako eskubidea dugu, orain arte Euskal Herriari buruz ez, baino, Saharan eskubide hau onartu behar zenaren gai horretan adostasun zabala zegoen Andoingo udalean eta herri ekimenetan adostasun hori ikusi arazi da orain arte.

“Ezin dugu ulertu orain, alderdi bateko zuzendaritza batek, unitateralki onartutakoak orain arteko batasun zapuztea. Horregatik, hemendik, gure elkertasuna adierazi nahi diogu Saharar herriari eta baita ere, beraien alde lan egiten duten herritar mugimendu guztiei eta, bereziki, Andoingo Hurria-Saharari.”



Jarraian, Santana andrea, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Yo, la verdad que, cuando escuché lo que hizo Pedro Sánchez, la verdad, no daba crédito, no lo entendí, creo que todavía no lo hemos entendido nadie, en mi partido estamos un poco perplejos, esta es una más, pero bueno, es una decisión unilateral que va en contra de todo lo que se había dicho hasta ahora, yo también he estado leyendo la declaración institucional que el mes pasado aprobamos y no lo entiendo.

“Sinceramente, creo que, al grupo socialista os deja en mal lugar o en una posición muy incomoda en este momento, pues porque, han declarado una cosa y ahora os han marcado lo contrario, o sea, yo, a mi no me gustaría estar hoy en su pellejo, pero bueno, vuelvo a decir lo mismo, nosotros nos seguimos solidarizando con el pueblo saharai y entendemos que lo que dice la moción, así como lo que decíamos en la declaración institucional del mes pasado es lo mismo. Nosotros creemos en el derecho a su autodeterminación y que puedan decidir y además, es que, ha dejado en una posición muy incómoda también a mucha gente que son españoles, tienen documentación española, están en medio de la nada y les ha dejado desamparados totalmente. Sigo diciendo que no lo entiendo, todavía no puedo ni argumentar porque no me lo explico, pero, bueno, desde luego vamos a votar que sí a la moción porque la compartimos totalmente. Lo siento de verdad por ustedes, porque firmar esto y ahora tener que ..., no sé, no sé, lo voy un poco complicado.”

Jarraian, Verdasco jaunak, PSE- EE udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Queremos dejar claro que se nos hace muy difícil no votar a favor de esta moción, ya que aunque no estamos de acuerdo con la redacción de la misma, si lo estamos con el espíritu que persigue, tanto a nivel de grupo municipal, como a nivel personal, apoyamos al pueblo saharai y a la Asociación Hurria-Sahara de Andoain, así lo hemos demostrado siempre y así lo vamos a seguir haciendo, es por ello que nos reafirmamos en los cinco puntos que votamos a favor en el pasado pleno de mes de febrero, pero por disciplina del partido nos vamos a abstener en los cuatro primeros puntos de la moción que se trae hoy al pleno y votaremos a favor en el quinto punto.

“Como ya lo solicitamos en la Junta de Portavoces, solicitamos que ese vote punto por punto la moción.”

Berriro ere, Goenaga jaunak, EAJ/PNVko zinegotziak hartu du hitza, honakoa erantzuteko:

“Gure aldetik ez dago arazorik puntuka bozkatzeko eta, bueno, uste dut aipatu den bezala, koherentzia ariketa bat dela ez, uste dut Andoingo herrian bereziki Saharar herriarekiko elkartasun nabarmena egon dela, urtez urte lantzen joan dena eta horri koherentzia eman nahian aurkeztutako mozioa da. Guztion hitzak, ekarpena baloratu positiboki.”

Jarraian, Alvarez jaunak, EH Bilduko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Guk ez dugu arazorik, puntuz puntu bozkatzeko, baina, orain arte esandakoari jarraituz ba, duela hilabete adierazpen instituzional bat aho batez onartu eta gaur hau aho batez ez onartzeak guri behintzat tristura sortzen digu.”

Jarraian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Tampoco tengo problema alguno para votar punto por punto y, de verdad que siento la posición en la que están.”

Jarrian, Alkate andreak, hartu du hitza eta honakoa adireazi du:

“Orduan ondo iruditzan bazaizue lehenengo puntutik, laugarren puntura bozketa bakarrean egingo dugu eta ondoren, bosgarren puntua bozketara jarriko dut.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andreak mozioaren lehen puntutik, laugarren punturako proposamenak bozketara jarri ditu eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andreak eta PSE-EE udal taldeko zinegotzien abstentzioarekin eta EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, onartu ditu.

Jarrian, mozioaren bosgarren puntua bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, PSE-EE



EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, onartu du.

14.1 Ebazpenen berri ematea, zehazki, 273/2022 zenbakidunetik 474/2022 zenbakidunera.

Alkateak zinegotzi guztiei jakinarazi die Alkatezaren ebazpenak, nahiz eta edukiaren berri izan Udalbatzarra aurretik, beraien esku daudela, hain zuzen ere, 273/2022 zenbakidunetik 474/2022 zenbakidunera.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

15. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Ez dira izan.

Alkate andreak hitza hartu du eta honakoa adierazi du:

“Bukatutzat emango dugu gaurko udalbatzarra eta azken hilabeteetan egin dugun bezala, egia da, oraindik, Covid19kin jarraitzen dugula Andoainen eta horrexeagatik, herritarrei eskatzen diegu zuhurtziaz eta arduraz jokatzuz jarraitzea.

“Damos por finalizado el Pleno, todavía los números del Covid no son los que nos gustaría y bueno, en ese sentido, seguimos pidiendo prudencia y responsabilidad a la ciudadanía.

“Mila esker denei.”

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 19.41 minutu zirenean. Idazkariak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, Idazkaria naizen honek, ematen dut.

O.E.

Alkatea

Idazkaria

